

**AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA HIRI
AGENDA KO SAILBURUARENA,
ARABA ERDIALDEKO EREMU
FUNTZIONALEKO LURRALDE
PLANA BEHIN-BEHINEAN ONESTEN
DUENA****ORDEN DEL CONSEJERO DE
VIVIENDA Y AGENDA URBANA POR
LA QUE SE APRUEBA
PROVISIONALMENTE EL PLAN
TERRITORIAL SECTORIAL DEL
ÁREA FUNCIONAL DEL ÁLAVA
CENTRAL**

1.- Orduko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko irailaren 4ko Aginduaren bidez hasierako onespena eman zitzaion Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Onspena 2023ko irailaren 22an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta El Correo, Deia eta Noticias de Araba egunkarietan. Era berean, irailaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Agindu horren bidez Plana, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, jendaurrean jarri zen berrogeita bost egun baliodunez. Aldi berean, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura zela eta, entzunaldia eman zitzaion lurralde-administrazio publiko interesatu guztiei, eta kontsulta egin zitzaion eragindako interesdun eta administrazio publikoei.

3.- Epe horretan, 25 alegazio-idazki, ohar eta iradokizun jaso ziren, bai eta kontsulta-izapideari emandako erantzunak ere. Era berean, beste 6 idazki jaso dira epez kanpo.

4.- Alegazio, ohar eta iradokizun guztiak aztertu dira, baita kontsulta-izapide horren erantzunak ere, eta horri buruzko txostena egin da, eta banan-banan erantzun zaie.

1.- Mediante Orden de 4 de septiembre de 2023, del entonces Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes fue aprobado inicialmente el Plan Territorial Parcial del área funcional de Álava Central acompañado del Estudio Ambiental Estratégico. Dicha aprobación fue publicada el día 22 de septiembre de 2023 en el Boletín Oficial del País Vasco, el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, el Boletín Oficial de Bizkaia y en los diarios El Correo, Deia y Noticias de Álava. Igualmente, con fecha 28 de septiembre fue publicada en el Boletín Oficial del Estado.

2.- La citada Orden sometía el Plan junto con el Estudio Ambiental Estratégico al trámite de información pública durante un plazo de cuarenta y cinco días hábiles, y de manera simultánea a los trámites de audiencia a todas las administraciones públicas territoriales interesadas y de consulta de las administraciones públicas afectadas y de las personas interesadas que habían sido previamente consultadas, en el procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

3.- Durante el citado plazo tuvieron entrada 25 escritos de alegaciones, observaciones y sugerencias, así como de respuestas al trámite de consultas. Igualmente, se han recepcionado otros 6 escritos fuera de plazo.

4.- Todas las alegaciones, observaciones y sugerencias, así como las respuestas del citado trámite de consultas han sido analizadas habiéndose emitido el correspondiente





5.- Jasotako alegazio eta txostenen ondorioz hainbat aldaketa egin dira, eta dokumentuan beharrezkoak diren hainbat zuzenketa tekniko ere bai. Zuzenketa tekniko horien artean, nabarmentzekoa da araudiaren 25. artikulua, energiari buruzkoa, berregituratu dela. Berregituratze horretan ez dira kontuan hartu egun izapidetzen ari den Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren erreferentziak eta kontzeptuak

6.- Orain arte egindako izapideak ikusita eta beharrezko aldaketa eta zuzenketa tekniko guztiak sartuta, egokia da Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala behin-behinean onestea eta prozedurari jarraipena ematea, lurralde-antolamenduaren planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 16. artikuluan xedatzen den bezala. Ondoren, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera eta ingurumen-organora bidaliko da, lehenak nahitaezko txostena egin dezan eta bestiek ingurumen-adierazpen estrategikoa.

7.- Organo honek eskumena dauka behin-behineko onespina emateko, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horri jarraikiz, honako hau,

XEDATZEN DUT

informe al respecto y siendo contestadas de modo individualizado.

5.- Como consecuencia de las diferentes alegaciones e informes recibidos se han introducido diversas modificaciones, así como diversas enmiendas técnicas necesarias en el documento. Entre estas enmiendas técnicas cabe destacar la reestructuración del artículo 25 de la Normativa, relativo a Energía, en el cual se han eludido las referencias y los conceptos propios del Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables, actualmente en tramitación.

6.- A la vista de la tramitación llevada a cabo hasta el momento e introducidas todas las modificaciones pertinentes así como las enmiendas técnicas necesarias, procede acordar la aprobación provisional del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Álava Central y dar continuidad al procedimiento, tal y como se dispone en el artículo 16 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, remitiendo el expediente tanto a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco como al órgano ambiental para que formulen el correspondiente informe preceptivo y la declaración ambiental estratégica, respectivamente.

7.- Este órgano es competente para otorgar la presente aprobación provisional en virtud de lo dispuesto en el artículo 13.3 Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

En su virtud,

DISPONGO



Lehenengoa.- Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari behin-behineko onespena ematea.

Bigarrena.- Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaltzea, hiru hilabeteko epean nahitaezko txostena egin dezan.

Hirugarrena.- Aldi berean, ingurumen-organoari eskatzea egin dezala ingurumen-adierazpen estrategikoa bi hilabeteko epean.

Erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala behin betiko onesteko prozeduraren barruko izapidea baita.

Primero.- Aprobar provisionalmente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Álava Central.

Segundo.- Remitir el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para que emita su informe preceptivo en el plazo de tres meses.

Tercero.- Simultáneamente, solicitar al órgano ambiental la declaración ambiental estratégica para su emisión en el plazo de dos meses.

El presente acuerdo no es susceptible de recurso al constituir un acto de trámite dentro del procedimiento de aprobación definitiva del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Álava Central.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua
El Consejero de Vivienda y Agenda Urbana

Denis Itxaso González